



ARRAUNA

Azken estropada

Zortzi unti ariko dira gaur eta bihar denboraldiko azken estropadan, El Corte Ingles Ikurrina irabazteko lehian. San Pedroko trainerua da, urte osoan bezala, ikurrina irabazteko faborito nagusia. / 19

Larunbata, 1993ko irailak 25 / IV. urtea / 869. zenbakia / Salneurria: 100 pta. / 5,5 libera

Gurutze lantzi urnietarra hil egin da

Goardia Zibilak atxilotuta zeukala

Xabier Kalparsoro atxilotua oso larri eraman du Poliziak Basurtoko ospitalera

Gurutze Iantzi 31 urteko urte-
tarrak hil zen atzo goizaldean
Madrilen Goardia Zibilak atxi-
tuta zeukala. Herenegun Du-
regon atxilotutako Xabier Kal-
parsoro zumaiarra, berriz, oso
basun egoera larrian eraman
zuten Basurtoko ospitalera.

Bertisio ofizialen arabera, bi-
tutzeakoak jota hil zen Iantzi eta
ere burua Indautxuko komisal-
egiko leihotik bota zuen Kal-
parsorok. Amnistiaren Aldeko
Bazordeak (AAB) eta Herri Ba-
suak Iantzi torturatuta hil zu-
ela eta Kalparsoro ere torturen
maginez utzi zutela hil zorian
erabatu zuten atzo. Datorren aste-
nean greba orokorra egiteko
erabaki egin zuen HBK.

antzi joan den ostegunean
kilotu zuten bere jaioterrian,
monostia komandoarekin' zeri-
sia izan zezakeelakoan. Kal-
parsoro herenegun hartu zuten
oso Durangon, furgoneta bat
hurtzera zihoala, polizi iturrien
abera. Kalparsorok pistola bat
aman, eta ETako 'Bizkaia
mandoko' kide izan zitekeela



Batzarra egin zuten Urnietan, manifestaldia egin aurretik. Eskuinean, Gurutze Iantzi ezkondu zeneko argazkian.



EDURNE KOCH

aipatu zuten polizi iturriek. Sendagileen txostenaren arabera, Kalparsorok burezurreko haustura hirukoitza du eta zauri ugari gorputz osoan. Hiru orduko ebakuntza egin zioten buruan.

Herri ugaritan egin zituzten atzo iluntzean Iantziren heriotza eta Kalparsorori gertatutakoa salatzeko mobilizazioak. Iantziren jaioterrian, Urnietan, batzarra, ezohizko udal bilkura eta

manifestaldia egin zuten.

Kalparsoro ezezik beste zortzi lagun ere preso hartu zituzten herenegun eta atzo bitartean, Parise, Oiartzun, Hernani, Bilbo, Donostia eta Gasteizen. / **4-5**

BESTERIK

E S T A T U A K

Konstituzioa aldatzea
aholkatu du Frantziako
Estatu Kontseiluak / 14

K I R O L A

Munduko zesta
txapelketako finala gaur
Miarritzen / **20**

K U L T U R A

Mike Oldfieldek
kontzertua eskainiko du
gaur Bilboko
zezenplazan / **26**

Onartu ditu Madrilek aurrekontu murriztaileak

Datorren urterako aurrekontuak eta gizarte hitzarmenerako bileretan eztabaidagai izan diren zenbait neurri murriztaile onartu zituen atzo Espainiako Gobernuako Ministro Kontseiluak. 1994. urtean ekonomiak gora egingo duen arren 150.000 langabetu gehiago izango direla aurrikusi du Felipe Gonzalezen gobernuak. / 13

Madriilen ekonomi eta autonomi politika gaitzetsi du Ardanzak

Esplainiako Gobernuaren ekonomi eta autonomi politikari kritika gogorra egin zion Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakariak atzo Eusko Legebiltzarrean, politika orokorrari buruzko eztabaidan. EAEko ekonomiaren egoera txarraren jatorria nazioarteko krisian eta Madrilek «gure lehenetasun industrialen kontra» egindako politikan dagoela esan zuen Ardanzak. Transferentzien

blokaketa dela eta, Estatutua ez
betetzea leporatu zion Madrilgo
Gobernuari eta Estatutuaren ja-
torrizko planteamenduetara
itzultzeko eskatu zion.

Oposizioko alderdiek ezezik, gobernukide duen alderdi sozialistako Jauregik ere kritikatu zuen hitzaldia, «besteak erruak» baino ez zuela hitz egin eta «EAJn ahaztuta omen zegoen biktimismoa» sumatu zuela esan zuen Jauregik. / **7-8**

ORDU ALDAKETA
 behar goizaldeko 3.00etan
 ordubete atzeratu behar da
 eriojua. 3.00etan, beraz, 2.00ak
 zango dira.

